Dordokak eta elurrak

Iñigo Aranbarri

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1989 Iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1989ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Benjamin Moloiseri, inoiz
dordokekin amets egin zuelako.

Zuei, Neguetako Lagunei.

O inverno prevalece
mas sinto que ficou
alguma coisa por escrever.
Sim, é isso
—J. Oliveira—

Tortugueante la tortuosa tortuga
borrando sus huellas
en sendero no verde venció a Aquiles
—L.M. Panero—

Begira nola datorren langarra
Arrabitak umelduz
Argia dun arratsa
Hire erraietan
Eta nostalgiazkoak
Greziarako azken kargamenduak
Juniperoaren lorearen gisa
Zabaltzen dun
Pelikanoaren bihotza
Eta marinelek zerbait ziotenan
Ifarraldeko hizkuntzaz
Iraila dun
Eta irailez jazten dun portua

Armiarma zetazkoak
damaskozkoak
ditu jaiorazten
haize hegoak
eta Kurtz tipiak kausitzen
zuen bihotzen geletan
munduak zure esku tipitik
gainezka
egin balu bezala apartsu

Lizar bat itsasoaren erdian ernetzen da
Eta mila bestiariotan lehertzen bitsaren arima
Negar egiten dut zure oinetara
Malutetan lokarturiko hegazti tristeegatik
Zilarrezko esnea edanen duten hodeietara
Ez naiz argi mintzatzen, eta badakit
Itsaso bat lizarraren erdian ernetzen da

Estudiora heldu eta kaiera zabaldu zuen. Tristeziazkoa zen Nederland orduan. Damero osatubage bat nabari zitekeen lehen orriadeko zirriborroetan, ardatz zuenez, orbita galduz lagundurik. Bigarrengoan, zelai gorriztatu baten amiltzen ziren irudiak egundaino. Infernuaren baitako surik barenean izkribatu zuen: Zerbait marraztu beharra, arrai lodiz, presaka, mundua —gure mundua— azken erdokan finituko balitzaigu bezala. Zerbait marraztu beharra, arimak, esate baterako. Zoomorfoak.

Apoarmatuen ohe ertzetan
egun galduak, arrebak ditut hiltzen
gatzez eta lorez zoragarriak
egun galduek arrebak hiltzen dituzte
arrebek loreetan naute irristarazten
oheak, barka, ertzak galtzen ditudaneino
egun galduek apoarmatuak hiltzen dituzte
apoarmatuak zoragarriak dira
egun galduak gatzezkoak dira
arrebak loreak dira

Zure adatsaren kolorea du bideak
Urdina
Orein eriaren gisa noa
Aintzira zilarreztatuak
Edota lautada amaikaitzak irudikatuz
Eta lurra ez dabil nirekin
Giacometti izutua naiz
Kaleek sare zuria ehuntzen dutelarik
Urruntasunean
Eunukoak dakuskit zure leihopean
Egunsentian
Muinoei darien argitasunen zain
Eta euriak oskolak dakartza
Errinozeroaren garaian dande —dira
Zure lehenbiziko hitzak

Oraindik daramat eskumuturrari loturik
Iazko sanjuanetan oparitu zenidan
Isidore Ducasse Luxe Quartz erloju hura
Zure lorea bezain beharrezko izan bait dezaket
Atea zabaltzean, li—
Moiurezko egun moteletan.
Ez dut hitzik izkribatu
Ezagutzen nauzu, c’est trop topique
Menbrilo liketsuen lanbroari begira
Entzun dut zure Iztarrarteko horbel hotsa,
Marrubien olatua.
Eta arratsaren errautsa atearen hutsean.
Bai, berandutzen ari zait.

Zazpigarren aldia da
Zure sabel malgura natorrena
Begi laranjadun narraztiak ikustera
Eta belazeetan oroitu naiz zutaz
Landare iharren artean paseatzen
Ez omen zaude baina
Iazko aintziran
Eta zinema ilun baten sartu naiz
Ez bait nuen autobusik artean
    —filmeko neskuts ilegorria
    krokodil artean bizi zen,
    eta edelweissak hazten
    zitzaizkion arratsero
    ditipuntetan, marrubi usainez
Gero zure zain izan naiz geltokian
Bidaia ajentzia bateko argazkiei begira
Baina ez zara itzuli
Eta aspaldian ez dudala irten
Gogoratu dut, urdinez

Eztiz betetzen dira arrabitak
Isiltasunen karroza iragaitean
Zenbat ipurtargi arrats hartan
Eta tristea dela hain gau ederrak
Urtean behin izatea esan nizun
Gauak botilak eseki zizkigun
Bere arrametan eta opil gozoak
Arrabita lorez bete zen geroago
Brioletez, gladioloz, amiñililiz
Inoiz ez du zure adats zeatuak
Hain zeru usainik izan sekulan
Zoriontsuak izan ziren lagunak
Mizpirak zitzaizkien hasi loreei
Guri planeta perfektoak bezala
Egunsentiak elkarri besarkaturik
Arkitu gintuen arte irrifartsu
Orain bai, huts ezazu arrabita

Ume eta ausart nintzenean
erreka ondoan eseririk
odola zerion harrien borobiltasunari
eta lizardian barrena zabaltzen zen
emazte diganteari odola
oroitzapenak gordez hil balitz bezala
eta denborak libre uzten ninduen
bere begi beltzen zelaian
libre uzten
egunen hiroan sar nendin
lur malatsetako
tximeleta horailak harrapatzera odoletan
libre uzten
urteen baitako ur urdinetan bataia nintzaten
bere begi beltzen zelaian
non belarra zeruan sartzen zen
zauri zuriak ernerazten zizkion arte
bidezidorrak itorik
lehoiei zintzur eginez

Ihintzak hire oreinak
bustitzen dizkin
Eta antzar hots bilakatzen
olatu deslaien gailurrean

Yannis-i

Hator, urreztatua.
Esaidak anitz direnentz Plakaren besoetan
lokartzen direnak zerutik egozten dituzten
arratsetan.
Esaidak anitz diren Pretoriako urkatuez
oroitzen direnak limoiondoen pean.
Anitz diren zeruak dituzten etxeak mahastien
muinoan.
Ez, urreztatua. Ezeidak gehiagorik atera.
Zain dituk etxean, hain duk berandu.
Ez zekitek hemen naizena, hire ondoan, tximeleta
handi hauei hitzegiten, ilargia irlen gaineti.
Ozeanoa.
Fenixak iragaiten entzun, izarren joanetorria
egunen sabaian. Olatuen lurruna.
Baina ez gaitiztek tsámikorako esnatuko, ikusiko
duk,
eta amodioen, harri zaharren gaindi iragango dituk,
saldoka.

Ozeano gehiago. Untzi galduak gauean.

Ez, urreztatua. Berandu duk.

Fenixak, ilargia irlen gaineti.

Iraganeko uretan
lokartzen dira, bidaide,
adiskidetasunaren tantai prezisoak
herioarenak —esan nezakeen
beira iluneko urnak besarkatuz
non lo diren azken malutak
iguana hegalarien begietan gordeak

Ur bareak, ateriak
geografia errepikatuak

Y en la noche, tu hermana
me diste la mano
(L.M. Panero)

Gela huts bat ezagutzen dut
urmaelaren beste bazterrean
Zatoz nirekin
—eta bere eskua urki baten azala da—
arrain gorriak iratzar baino lehen
markak dituzte
bidea erakusten duten harriek:
bi sirpe auzka
keramika zuriko zelaian
hartzak kurriloa irensten du
Bavariako bakardadean
denboraren garaipenaz mintzo zara
ahizpen baitan idoratako iceberg hondarrez
baina ulergaitzak dira zure hitzak
izan ere horrenbeste ur dago
hain da idorra zure ahoa, eremua
urki hostoz betea hegoaldean

Ziegaren sexu posibleak
Zirriborratzen
Ikara honen kaieran
Eta marra bero bakanak
Biriketan kristaltzen
Zaizkizunak direla dakit
Animalia ezezagunen itxuran

Gure neguen jabe
noiz date iparra?
—j.l. Davant—
Ostatuko paisaia, 1916

Zein ulergaitz den izpilu hau
Agure hordia da falta ostatu zokoan
Kanta zaharrez, belauntziz beteriko godaleta
Berriak ez dautza lo marbrezko mahaietan
Berririk ez bait dago, gutun horailak baizik
Ontsa naiz
Eta izpiluz josten ilunabarra
Jeanek negar du egiten Aldudetan
Noraezean hegaztiak leihoaren mugetan
Ez du ihizeak atariko bekana estaltzen
Ez larrazkenak arrabitaren jolasa

Insomnioak ere
Hain zabalak ez balira hemen
Ahazturaren ibai hauen hegietan
Ez balira esoletatik ate bizi
Hegabera beranten erresuma honetan

Moratsak hostoak zure alkian
inoiz zabalskak inoiz geziak
eta beti hor izan direla dirudi
inoiz urdinskak inoiz ubelskak
akordeoi baten soinua da entzuten
sagarren haziena, erotsen ihiena
eta beti hemen izan zarela dirudi
hutsik hertsiena, hitzik guriena
zatoz, so egiezu ibai hegalei
eta zubiei harantzago

Ilargirik ez kausitzea zure oinetakoetan
Sasirik ez maitatzea izaren geografian
Haizerik ez ebastea zure elastikoan
Garagarrik ez ereitea alkien bakardadean,
Lainorik ez gorrotatzea zure poltsikoetan
Belardirik ez hiltzea erlojuen pausagunean
Lanbrorik ez horzkatzea zure atorrean
Masustarik ez tirokatzea pasiloen luzeroan
Langarrik ez urkatzea zure praketan
Armiarmarik ez laztantzea eskaratzen beroan
Elurrik ez zapaltzea zure sonbreiruan
Otalorerik ez larrutzea argien belazeetan

Ezina da

Poema hau j.l.a.ri diot eskeintzen, berak ez dakien guzi horregatik

Dordokak entzuten dira gela honetan
Basurde urdin zaurituak, tukanak
Biblioteka zaharreko azken argiak
Prahatik inoiz
Zure gutunak datorren neguan joanen naiz
Ordea joan dira neguak, eta gutunak
Eta botila baten begitik oroitzea da
Gelditzen zaidan ohe bakarra
Bezperako soinekoz, ibisak kausi nahian
Lagun hilak ditut gogoan zurekin nagoenean

Oleo bat larrazkenean

HAECKEL Erich. Pasealariak aintzira alboan (Irudiak arbolapean). 1911. Oleoa mihisa gainean, 70,7 x 80,7 cm. Folkwang Museum, Essen.

Hosto garratzeko bonsai baten gerizpean borrokatu zela esaten da, hiru alaba izan zituela egunsenti hartako izterbegiaren emaztearen sabel haustuan. Arno zuriaren kolorekoa omen zen nagusienaren adatsa, eta aintzira eskoziar bi bigarrenaren begiak, hodei mehez urratuak. Hirugarrena inork aipa ez zezakeen animaliaren itzalean gorpuzten zen hilketaren egunak halabeharraren zirkuloa betetzen zuen bakoitzean.

Zazpi bete zituen egunsentian, sabel armatuko animaliak bere aita hil eta irentsi egin zuela esaten da.

Muxuka nazak Paul Celan
muxuka itzak denboraren krisantemoak,
Lauaxetaren alua, Lizardirena.
Eta utz ezak azken bat
gure arnoaren behazunean.
Ez haugu aspaldian izan.
Azkenengoz baga baten sehazkan
        oroitzen haut,
miraila eskuetan.
Eta ez huen hausterrik begietan.

Lore artikarrak
Ascoliko brontzean gora
aidearen lizuna
argi hondoratu baten bihotza
seinalatu nahiean,
hitzen adar gorrisketan korapilduz
goraka
zehazkabea izan dadin
zure arnozko azala, arratsa

Deborak norbait hil du
lur honetako azken baratzan
hostoetan nabari daiteke,
tantak dituzte hegaletan
mihi leunak eta
maitasun hondoratuak
soma dakizkioke begien baretasunean
bideak
hautsez, haize zaurituz harrotuak
kafe zaharrak, paraje
ezezagunak begi argiak bait ditu Deborak
— Deborak esan dut? barka,
Denborak, Denborak esan nahi dut—
urriko itsasoak bezalako begiak
hotz aiztoratua laztantzen

Karrak zure hostoek
Belazeko urratsak
Laztantzen ditudanean
Negu azkenduen jarioa
Hitz nahasien hondarrak
Gauak baino ez egunen samurtasunean
Urtzearen lorerik usaintsuena

Malbazkoa

Vienar burubagetua eiheran
Hona ere, urrunetik dator loa
Negarra —lurralde azkendu hau—
Ez da belarren makurtze hau besterik
Ur urdinduen iragaite asesinoa
Arimaz, mendaz, tampax eriz betea
Zazpigarren arratsaldeko desorduetan

Hemen mozten zure adats ikatz hotza
Osti euriaren usainekoak zure begi malgoak
(Judith)

Azken orenetan nabigatzen diat
erreskan doazen hitzen baitan
ez diat gutun hau besterik bidaliko
badakik, gaizki zegok dena
jakingo du ondo naizena
eta goroldioak estaltzen duela
ene bihotz tipia
luzeak direla ibaiak hemen
denboraren arrastoa ito nahiean
kizkurtzen, borobiltzen direla
arratsero ia, nostalgia bila
basoratzen gaituk
baina ez dizkiagu kilker hilak baizik hatzematen
eta tantaka dituk ereinotzaren loreak
gure eskuarteko amerika tipia deskubritzean
eta dena iluna duk berehala
edo handia
hain handia noia den handia iragana
eta zuen gutunak zetozkidak gogora
hautsez beteriko musuak opatuz
kurrilo iheslariak bailiren
oroimena kare bihurtzen zaidaneino

Umeen afarian nork daki nor den hiltzailea
nor suaren zaintzailea, birjina, ilunpean.
Gaua begiak dariola, nork isuri ditu
Memoria hauek liketuriko lanbro xehe zuritan.
Eta lurraren ahotsak inon galtzen ez direla.
Ez da beharrezkoa denbora ulertzea alor tipian.
Ausentziaren afarian, amapolak aluetan loretzen.

Badela hitz suntsitua
azalaren berdeari josia
bere mirariaren amodio erian

Apoarmatuaz hitzegitea da, memoriak eta bideak elkarrekin topo egiten duten punduan. Memoriak itsuak dira, bideak eternoak. Demagun bide hauetako bat hartzen dugula, ifarralderantz. Zoroetxe bat dago ibai hegalean, elurpean. Edo diamante formako gartzela bat, hain da zaila zehatz adieraztea. Neguak izan ginen oro eraman nahi duela dirudi.

Gutuna amaitzea lortu zuen, kontu handiz, Gabonetako ipui baten balego bezala. Vis A vis.ean atera zuten: Irrifarre egin di date gaur arrainek brioletez orraztuz

M.S.ri

Betazal hotz tiranikoak zirriborratu nizkian,
Dantzari zingaroak ikusi nahiez hil ziren
Hegazti zoliak, ezpata ahaztuak belazeetan,
Itsasorik bageko zerua, han, trobadorearengan.
Ziega tipia zirriborratu nian. Piamonteko baso
Doratuak gogoan, hain doiak usapalez garai hartan.
Norbaitek Mark Twainen izena aipatu zian ezkututik
Hirea eta ezpatena gero latsaren lausetan irristaka

PECIK, Pavel, Sarah eta aintzira. 1907. Grabatua. 7x4,5 cm. Lesky Muzeum. Praha.

MELRIK, Johannes. Bestiarioa eta mendekua. 1911. Grabatua. 9x6. Lesky Muzeum. Praha.

MELRIK, Johannes. Aranak zure sabelean eta apoarmatua. 1911. Grabatua. 9x6. Lesky Muzeum. Praha.

Zorotzat hartu gintuzten
garitzan ito ginen hartan.
Baina ez genuen ekilorerik,
ez kromletxetan gorde zitekeen usorik,
mapa hitsik, lehoi abisiniarrik
Turkiako fruitu mikatzak
eta zurrumurru bat baizik:
Cernudak ez zuen elurra maite.
Zerbait gehiago apika
abiadore irlandar batek
bere heriotza iragarri du
Yeatsen poema baten ortzemugan
— zioen egunkariak
argazkian abioi bat zetzan sutan
zumar hilen artean
ondokoan cockerren begirada du zenduak:
haren malkoak
hegoalderantz ihesi doazen antzarrak dira
denboraren alaba zontzonak

Imajina itzazu
Tristezitan sortzen
Kateatzen diren animaliak
Ilunabarrak bezain astiro
Alargunen ubelduran ezkutatuak
Iraganiko zelai berdeak oroituz

Imajina itzazu
Bidangozeko orenak
Txori zaharrez, gutun hezez
Beterik elurbustipean
Alagia ahaztuen gaindi

Imajina kornamusajole zuri bat
Ume basatiaren goizean

Edota egunak
oinazearen diosalak seinalatzen zure sabelean
zure begietako polenean noraezean
sustrairik bageko alga azulak bezala

Desorduetakoak

I

Eromena zor dizut
zilarrezko bideen atekan
odoleztaturiko animalia bat
hiltzailearen lorratza belarretan

IV

Ez ikaratu
kalosaurio bat bada nire bihotzean
ez dira ehizera abiatzen
irria ehuntzen duteneino

VI

Hilak entzuten ditut
atarian jolasean
zintzarriak astinduz
mendeen isiltasuna gero

VII

Eromena zor dizut
bakarrik izate hau

hegabera setatiak
desioaren hazian

XI

Zabalik omen dira ateak
husar urdinen eskuetan
eustea eustea eustea
lagunak mahaian hitzegiten

Gutuna gauaz

ERRAC eguia urka aite
(Oihenart, Prov. 148)

Horiak
Eguzkiloreak eta mahats mikatzak
Horiak zitroiondoak
Urkatu doratuak kulunkatzen

Egunak eta hostotsak
eman ditut etxetik lekora
tren urrunei lotu nintzaien
lore moreen zelaitik haruntzago
eta horretan bizitu nituen suak
iluntasunaren lau ertzetan
orain, gure begiak ez dira
ur izoztuak baizik
oroimina nolabait estali nahiean
eta elurretan gara paseatu
ezponden bidean
eskuak habietan, ibaietan
hegaberak, zozoak edota odoleztaturiko
abionetaren bat idoro nahiean, agian.

Badira otsoek eta zoroek baino
ahoskatzen ez dituzten silabak
bizitzaren hondarretan baino
oroitzen ez diren hitzak, liburuak,
geografia miragarriak
badira baita ere ostendu diren
koloreak, notak, oinak lainotan

Badira otsoek eta zoroek baino
oroitzen ez dituzten hitzak:
Gerla zure ateetara da etorri

And the tired child,
the body, longs for bed
(RI. Stevenson)

Luzaroan, infernuan.
Ume basatiak leihoa marrazten du armairu atzean eta ihesi doa.
Eta ihesi doa gau zehazkabean, izenik bageko palaziotik.
Parke zabalak, hegazti hotzak.
Lili zuriak eskuan.
Usain gozoa, goatetan oheratzea. Kanta zahar bat lilitoen ahoan gau abailduan.
Gorputz beroak, besarkadak.

Erre ezan ene begietako belarra
habi estuz ase daitezen baino lehen
ez bait haiz, azken finean, berriz etorriko
ibaian gora arraun eginez
hire arpegi alaia uraren sustraietan
mila mila arraintto loretzen
mila mila arraintto loretzen

1. erraza dun era honetako gauzak imajinatzea
sofritzea galdetu itzala galdu duen
gizontxoari zergatik zaude hain soil
hain hits ehundaka kolorez jantziriko
laminetan pleiadeei basoei okapiei
begira berreskura ezina denean

2. edozein amets dun egokia edozein ohantzetan
gorantza begira hatzala ezkutuan
gogoratzen haiz ez dute uzten
maitatzen gauean ez zirkus romaren
muxupean einarek markaturiko bidea
dario zure sexuari poema mediebala
usoak

3. konda iezadan piraten ipui bat non biok
maitasunean

4. atea jo ziaten eta francis huen zabaldu zuena my
darling bai gainera erori zitzaion
bueltaka mila buelta emanez suzko

zaldi behor itsuak bailiren ilea baso bat eta iztarrak eta zuria eguzkiaren muga gorraila ipurmasaila eta arnasa estua itotzen ozeanoak desertuak zartatuz ezpainak eta hegazti beltzak maite haut maite haut eta hatz abentureroak orinokoan barrena kenian barrena tigreen azken zotinak entzunez adituz orinokoa tam tam ta

5. boskarrena jonatan swiftena zaila da barkatzea gull

Haitzetan behera abiatu zen. Atzetik zituen. Hondarretara jeitsi eta espazio borobila mugatu zuen oin biluziaz. Beltzezkoa zen itsasoa. Untzi batetik norbaitek agurtu zuen urruntasunean, beirazko bisaiadunen keinuz. Fleuryko negutegietatik ihes eginiko loreak persekutatzen hil zen, elurren petaloak algekin, medusa bihotzekin kausitzean.

Bainerari so nago eguerdiro bezala
Nola doazen aztanduz
Legoa eta magnolioen tripulazioneak
Nola diren gero eta erraldoiagoak
Gardan ateratako argazkien gisa
Bainera inguratzen duten horma izoztuak
Nola erre den faroko argia
Harpa ahaztu batek
Aingura altxatzen du
Eta ezinezkoa da ihesa

Belamala bauzten
gure melen
lainean, usai;
loasac, plauac,
errebac çaliz.
Pleiac pabaren
marasac çebalen
liboi maluetan,
malasurico çiloi
galmuac pule
çesailetan, eta çu
seila luçunez.

Ukimena zuria da.
Adar zabalekoak zuhaitzak
latsaren egunerokotasunean.
Zilarra, hegaztiak, mausolekoak.
Hotzak etenaldiak
ahazturaren oinetan.
Gaua zuria da.
Geziak, azkonarrak, elurrak.
Neguko labanez zintudan eran.

Biarnoko arnoak
gorrotatu zintuen,
ez nireak.

Poesiak heriotzari
Aurre hartzen diola dirudi
Edo hegoalderantz
Higitzen dela behintzat
Karrusel zaharren antzera
Mila pekatutan biraka
Poesia
Animalia bakanez
Landare gelautsez
Elikatzen dela diote
Igande arratsetan
Hondamendi hitza limoindoaren
alboan

Hainbestetan
horzkatu zaitut
zuri epel
diamante honen
bihotzean haus
terretatik zi
nenera ino

Harri urdin baten kolpeaz lehertzen zareten arrebok
Gaua ez da armiarma bat baino, handia eta herabea
Nurenberg.eko errinozeroa, deskrizio urrunez egina
Gauagatik hartu zuten erleek Erroma, Zuberoa.

Rubizko latsetan bainatzen zareten lagunok
Zer da bada gorrotoa, denbora bera hainbestetan
Kaietenian sartu eta harritxintxorrak egoztea malkotan
Otarantzaz beteriko egunsentietan, ilunabarretan.

Bedatseko ihintzetan maitatzen duzuen arrebok
Orenen samurtasunez genituen bedeinkatu etxeak
Hölderlin berridatziz hogen gureak garbi zitezen
Izotzezko amodioak bezain arin, kolpe hotz batez.

Memoria urdinska bat zor dizuet, iragangaitza.

Soka horaila osatu dute basahateek
Ibaiko bideari segika: Ordua da
Suziriak ihaurtiki dizkiegu zubietatik
— gorriak, berdeak, horiak —
Eta sabaian eseki diren palmerak
Desiratu dituzte instant batez
Gero, goiza senditu dute esnatzen
Mizpira zabaldua bailitzan
Zauritua, eta bobedaren begian dira galdu
Galderak sekulakoz eramanez

Verr’a la morte e avr’a i tuoi occhi
(C. Pavese)

Erresuma bertikal hau
Azunez baldosa zuriz betea
Zoroetxe handi huts bat bezala
Oroitzapenik arrotzenean

Hain da hotza goiz hau
Azaroko fruitu irekia

Beti gelditzen da zerbait
botilak, zapatez beteriko zelaiak
zure oinak ohearen barrenean
Nafarroako elurrak bezain zuriak
zapiak estazioetan, etsaiak
hegaztiek orenen atalik sotilena
antzezten dute
koartza gorrien ahuena: lumak
kaleen bakardadea ere hor dago
etsipen zukutua zure begietan
eta malkoak
gorrotatu beharra dago
gorrotoa bait da gure altxorrik
ezkutuena
zuhaitz gorak inguruetan
lagun joanen eskolta baten antzera
zapi arrotzenez estalia
egunaren hozpela pauso ttipiz
hurbiltzen delarik
koartza erietako bat bailitzan
eta begi errukiorrez begiratu
gero irrifarreak entzun dira

Hori da

Ezar diezaiogun izena neguaren fruitu bakoitzari
Zazpi otarrain hazi ditut erraietan
Etengabeko lanbroa bezain mendekariak
Hagitz lauak dira orenak urrun zaretenean
Lagunak ditut orain gogoan, ez otarrainak
Bakardadeaz mintzo zatzaizkidanean zikloaren
aztarnetan
Eta urak inoiz gure uhartea irentsiko duela
Edo aieru hori duzula bedere, gure etxeak, ostatuak,
Goletak eramango dituela harkaitz zorrotzerantz
Ahaztura ezpal bilakatuz, kaolinezko amapola

Agora que atraveso a terra
Lembro tempos onde a cinza é
Un soweto sen gatos, sen abris
Una quenta escuridade
De infidas bestas e ouropel
No sieiro corazón de neboa

Kanela landareak
deskubritu nituen zure begietan.
Euri asko jausi zen gau hartan,
eta zin egin nizun: Enaiz berriro hilgo
Adaska alaien artean lo zen
ibaiak eraman zintuen egunsentian

—Itsuak direa? —esan zuen Callaghanek.
Munduak dituzte begietan.
(D. Thomas)

Ezinezko ziutateetan izan zen
landareak ikusi zituen hordien mintzoan
eta Pliseskaia epelak sentitu gauaren luzeroan
grisak ziren hondartzak
arras grisak ume hilez zorrozturiko arrezifeak
inora ez zihoazen marinelek
beren arbasoen fetoak zituzten kausi
primaderaren estraineko uretan
erruki izan zituen tranbien arimak porturako bidean
eta ostatuen bakardadean
lilitzen ziren lore herabeak
paretei erantsiriko itzalak entzun zituen
eta parkeetako laban ilargitsuak
hamargarren minutuan gelditu zen egunsentia
biguna zen lurraren esnea

Iruiteko Patxiri.
Anuntxiri.

Apiril heldu baten adarretan eseri zen, oinutsik eta hegoalderantz begira, tiobiboetatik ihes eginiko zaldiak ikus bait zitezkeen lainorik bageko egunetan muino urreztatuen bestaldean. Drake deituriko kapitain batek Portobellotik bidali izan zizkion gutunak eta Pablo apoarmatu zaharra hartu eta antzarrei ikasiriko bideari lotu zitzaion, oskarbia eta belar busti berriaren usaina lagun. Zaldi tipien hizkuntza ikasi omen zuen urteen, mendeen poderioz, Lisboa eta Istanbul ezagutu izan zituen gizon tipi baten besoartean lokartu zen arte, maitatuz. Nanuak apirilondoaren hosto artean bizi direla deskubritu zuten gau hartan. Moxalen drote herabea entzutea iruditu zitzaien urruntasunean, belar beiraztatua zapalduz. Handik denboraldi batera, lantzurdak jandako gereziz kutsatu zen Pabloren bihotza.

Anitz dira bakardadearen gelak
baina goiz jaiki behar du Munch-ek
kalatxoriak bezain goiz Zorrozaurren
eta bezperaz hasitako gutuna du amaitzen
oihuek hiltzen dituzte usoak parkean
beha tristeziaren lorratzari
haren larruzko boten gibelean
esku dardartiak azken esperantza berotzen
eguna argitu da kanaletan
eta anitz dira hartuko dituen karrikak
koadro batez hil nahiko luke bere burua
tranbiak negarraren haritik doazela
beha haren begien hondoari
ikatza garraiatzen dute gabarrek
su desberdinak diruditen marra malguak
atzeragotik datozenak
eta uren egunerokotasuna egiaztatu
duelarik
etxerako bidea du hartzen
esku dardartiak azken esperantza berotzen

Eskuetan pausatuko zaidan salara
Eta hire iztarrak izango dizkin
Eta hire begiak, bi ibon galdu behiala
Eta hildakoen adats beltza
Arratsaldearen memorian orraztua
Eta hotzez hildako narraztiaren bihotz nimiñoa
Zionat erakutsiko zauri ezabakitzetan
Honela zabaltzen bait hintzenan heu ere
Zauri soraioen sekuluetan
Branka urdinkaratuen elurretan oinutsik

Eta esnatzean
Betaurrekoak imini eta
Zitara jo
Zure begien forma irudikatuz
Arrain hegalariak
Inguruka dituztela
Ez zaitez basoetara itzuli
Kurriloek nire ohean
Habiratu dute
Eta ikasi ditut dagoeneko
Neguko lore ororen izenak
Zure urratsak entzunen ditut
Gereziondoaren ondoan hona zatozela
Eta aterantz noa
Iztarrak olatutik aldegin bage
Polen berdea leihoaren aitzi entzunez

Addenda

Brueghel Zaharrak Nastassja-ri
musu baten esan ziona

1279an jaio nintzen
Edo hirurehun urte lehenago
Ez dakit ziur
Iraganaz oroitzen ez direnak baino
Ez bait dute ezagutzen
Argia lehenbizikoz ikusi zuten eguna
Hiru urte nituelarik Titanic.eko
Orchestrako paper zurbilskan
Sinatu nuen: Pablo Smith, eta
Hogeitamahirurekin ez nuen sumindura besterik
Veneziako portuan
Behebarruetako suak
Hagitz garesti bait ziren
Urte hartan
Ordea bedatsak aurrerantz zihoazen
Itsasoan galtzen diren untziak legez
Eta elurrak estali gintuen Grosz.en ostatuan
Upelen likeztasunean

333 bete nituenean badoan Alexandria

Soin ezezagun batean

Dibisatu nuen arte

Eta zazpirehundik gora nituen

Shakespeare lehen aldiz ikusi nuenerako

Trapuzko anderetxo maiztuak baldarki astintzen

Sohoko kantoi galduetan

Harrezkero zer naiz

Ipuinik bageko dontzeila bat baino

Apoarmatu urreztatuta, hostots erori bat.